



GOBERNU BATZARRA

2021.10.13

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkari akzidentala:

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko urriaren hamahiruan, 11:30ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2021eko irailaren 20ko ohiko bilkurakoa.

2. "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa-programa. Behin betiko onespena.

3. Lurramendi baratze parkearen lursailak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

4. Dekretu hauen berri ematea:

2021/1628 Dekretua: 2021/36 eta 2021/38 faktura zerrendak.

2021/1529 Dekretua, 2021/37 faktura zerrenda.

2021/1652 Dekretua:, 2021/39 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO IRAILAREN 20KO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko irailaren 20an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUA URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Esparrua:	24. lurre
Azpiesparrua:	24.1 lurramendi pasealekua
Eskatzailea:	Construcciones Sukia Eraikuntzak, SA (ordezkaria: Alfredo Pozueta Lopez de Zubiria)
Sarrera datak:	2020/11/27 (2020-10110 zk.)
(erregistro	2021/03/16 (2021-3028 zk.)
elektronikoa)	2021/03/16 (2021-3056 zk.)
	2021/04/15 (2021-3919 zk.)
Espedientea:	2020H1130001

AURREKARIAK

1. 2020ko urriaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion 24.1 azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.
2. 2020ko azaroaren 27an, 24.1 azpiesparruko UJP dokumentua erregistratu zen Udalean, legezko izapideak egiteko eta onartzeko.
3. 2021eko otsailaren 2an, Obra eta Zerbitzuetako udal ingeniari teknikoak hasierako onespeneren aldeko txostena eman zuen, behin betiko onespenerako zenbait baldintza ezarrita.
4. 2021eko otsailaren 9an, udaleko hirigintza arduradunak txostena egin zuen, eta haren bidez adierazi zuen UJParen hasierako onespena desegokitzat jotzen zuela, aipatzen zituen akatsak zuzentzen ez ziren bitartean.
5. 2021eko otsailaren 19an, hasierako onespeneren aurkako txosten juridikoa egin zen.
6. 2021eko otsailaren 26an, Alkatezak UJParen hasierako onarpena ukatzea erabaki zuen, eta funtsezko akatsak zuzentzeko errekerimendua egin.
7. 2021eko martxoaren 16an, UJPa aurkeztu zuten Udaletxean, zuzenduta.
8. 2021eko apirilaren 7an, udal ingeniari teknikoak aldeko txostena egin zuen.
9. 2021eko apirilaren 15ean, beste UJP bat sartu zen Udaletxean, aurrekoaren aurreikuspen batzuk zuzentzen zituena.
10. 2021eko apirilaren 27an, udaleko hirigintza arduradunak hasierako onespeneren aldeko txostena egin zuen, baina baldintza batzuk jarrita.
11. 2021eko apirilaren 29an, Joseba Beristain Eguia udaleko aholkulari juridikoak UJPren dokumentuari buruzko txostena idatzi zuen.
12. 2021eko maiatzaren 18an Gobernu Batzarrak hasierako onspena eman zion "24 lurre" esparruko "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko UJPri.
13. 2021eko ekainaren 2an eragileak dokumentuaren bi kopia aurkeztu zituen paperean.
14. Tolosako Udalak 20 egunez jendaurrean jarri zuen Plana, alegazioak aurkeztu ahal izateko:
 1. Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten 2021eko ekainaren 9an, 107. zenbakian.



2. Pentsan ere argitaratu zuten iragarkia, *Diario Vascon* 2021eko ekainaren 16an, eta *Berrian* eta *Tolosaldeko Atarian*, 2021eko ekainaren 15ean, hain zuzen ere.
3. Udaletxeko iragarki taulan berriz, 2021eko ekainaren 9tik uztailaren 23ra bitarte egon zen.
4. Jendaurreko informaziorako epealdian, honako hauek alegazioa aurkeztu zuten: 2021eko ekainaren 28an, Juan Camino Chacón, Maitane Zubeldia Otamendi eta Joseba Zubeldia Otamendik, hurrenez hurren, 2021-6387, 2021-6389 eta 2021-6390 erregistroko sarrera zenbakiekin, eta 2021eko uztailaren 5ean, Juan Tomas Otaegui Martinezek, 2021-6645 erregistroko sarrera zenbakiarekin.
5. Aurkeztutako alegazioak bertan behera uzteko eskaera aurkeztu zuten honako hauek: 2021eko uztailaren 19an, Juan Camino Chacón, Maitane Zubeldia Otamendi eta Joseba Zubeldia Otamendik 2021-7066 erregistroko sarrera zenbakiarekin, eta 2021eko uztailaren 27an, Juan Tomas Otaegui Martinezek 2021-7324 erregistroko sarrera zenbakiarekin. Bestalde, 2021eko irailaren 21ean Francisco de Borja Alvariño Arancónek alegazioa aurkezteari uko egiteko eskaera aurkeztu zuen.
15. 2021eko irailaren 23an, udal idazkariak alegazioei buruzko ziurtagiria egin zuen.
16. Hirigintzako buruaren 2021eko urriaren 6ko txosten teknikoak, laburbilduz, honako hau dio:

“(…)

2.- AZTERKETA TEKNIKOA

2021eko maiatzaren 18an, Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion “24 lurre” esparruko “24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparruko UJPri honako baldintzapean:

LEHENENGOA: Hasierako onarpena ematea “24. lurre” esparruko “24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programari (2021eko apirilaren 15ean aurkeztutako dokumentuari), baldintza hauekin:

- *Programa jendaurrean jarri baino lehen, 10 eguneko epean, urbanizatzeko jarduketa-programaren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan.*
- *Urbanizazio-fase bakoitza eraikinen egikaritze-faseari lotuta egongo da. Beraz, fase bakoitzeko urbanizazio-obrak amaituta eta udalak jasota egon beharko dute, fase bakoitzeko eraikinen lehen erabilerako lizentzia emateko.*
- *Homogeneizazio-koefizienteak horiek eragin dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean eguneratu beharko dira. Beraz, horiek berrikusi eta justifikatu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan. Gainera, kontuan hartu beharko da Tolosako “24.1.lurramendi pasealekua” azpiesparruko hondar-balioaren estimazio-txostena, Marta González Cavia arkitektoak 2018ko azaroan Udalaren enkarguz idatzia.*

BIGARRENA: Urbanizatzeko Jarduketa Programa jendaurrean jartzea 20 egunez, alegazioak egin ahal izateko, eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkarian edo egunkarietan. Halaber, programa udal honen egoitza elektronikoan egongo da



interesdunen eskura, helbide honetan: <https://www.tolosa.eus>. GAOn argitaratuko da UJParen funtsezko zehaztapen hauek adierazita:

- a) Jarduketa integratua: "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparrua.
- b) Exekuzio-erregimena: kontzertazioa.
- c) Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - c1) Sestra gainean: 14.040 m².
 - c2) Sestra azpian: 10.971,75 m².
- d) Hiritartzearen aurrekontua (BEZ gabe): 1.630.702,09 €.

HIRUGARRENA: Ohartaraztea, Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko onartzeko, alde zurretik Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartu beharko dela.

LAUGARRENA: Ohartaraztea, urbanizazio proiektuak udal ingeniari teknikoaren txostenean zehaztutako kontsiderazio hauei erantzun beharko diela:

- Azpiegituren erregistroen egoera zuzendu beharko da, betiere ibilgailuen trafikorako galtzaden kanpoaldean kokatuta.
- Bidegorri-espaloien trazadura doitu beharko da 0+135 eta 0+170 kilometropuntuen arteko zatian.

BOSGARRENA: Ebazpena jakinaraztea espedientearen sustatzaileari eta memoriaren 8. eta 9. epigrafeetan identifikatutako ondasun eta eskubideen titularrei, hoguei (20) eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten."

Hala, eskatutako urbanizatzeko jarduketa-programaren papereko 2 aleak aurkeztu ziren 2021eko ekainaren 2an.

Bestalde, Udalbatzak, 2021eko maiatzaren 27an, ohiko Osoko Bilkuran, Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onespena eman zion.

Jendaurreko epean 4 alegazio aurkeztu baziren ere, ondoren, aurkeztutako alegazioak bertan behera uzteko eskaerak aurkeztu zituzten.

3.- ONDORIOA:

Aurrekariak ikusirik, ALDEKO txostena idatzi da "24. lurre" esparruko "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa (2021eko apirilaren 15ean aurkeztutako dokumentua) behin betiko onartzeko. Dena den, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- UJParen funtsezko zehaztapenak hauek dira:
 - a) Jarduketa integratua: "24.1 lurramendi pasealekua" azpiesparrua.
 - b) Exekuzio-erregimena: kontzertazioa.
 - c) Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - c1) Sestra gainean: 14.040 m².
 - c2) Sestra azpian: 10.971,75 m².
 - d) Hiritartzearen aurrekontua (BEZ gabe): 1.630.702,09 €.



- Urbanizazio-fase bakoitza eraikinen egikaritze-faseari lotuta egongo da. Beraz, fase bakoitzeko urbanizazio-obra amaituta eta udalak jasota egon beharko dute, fase bakoitzeko eraikinen lehen erabilerako lizentzia emateko.
- Homogeneizazio-koefizienteak horiek eragin dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean eguneratu beharko dira. Beraz, horiek berrikusi eta justifikatu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan. Gainera, kontuan hartu beharko da Tolosako “24.1.lurramendi pasealekua” azpiesparruko hondar-balioaren estimazio-txostena, Marta González Cavia arkitektoak 2018ko azaroan Udalaren enkarguz idatzia.
- Ohartaraztea, urbanizazio proiektuak udal ingeniari teknikoaren txostenean zehaztutako kontsiderazio hauei erantzun beharko diela:
 - a) Azpiegituren erregistroen egoera zuzendu beharko da, betiere ibilgailuen trafikorako galtzaden kanpoaldean kokatuta.
 - b) Bidegorri-espaloia trazarura doitu beharko da 0+135 eta 0+170 kilometro-puntuaren arteko zatian”.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152. artikuluan araututakoaren arabera, bizitegirako hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketa integratuen garapena eta exekuzioa arautzea eta antolatzea Urbanizatzeko Jarduketa Programaren (UJP) bidez egin behar da. Honela, aipatutako legeak 152-158. artikuluetan UJP izapidetu ahal izateko beharrezkoa den edukia, agiriak eta izapidetzea zehazten ditu.

Hain zuzen, honakoa arautzen da 155.artikuluan Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren behin betiko onespeneri buruz:

“4.– Alegazioren bat baldin bada, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, Udalak behin betiko onespenera emango dio urbanizatzeko jarduketa-programari gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onspen-erabakia lurralde historikoko aldirik ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe hori erabakirik eman gabe bukatzen denean, behin betiko onartu dela iritziko zaio, betiere interesdunei jakinarazteko tramitea burutu baldin bada.

5.– Urbanizatzeko jarduketa-programaren behin betiko onspeneri buruzko erabakia edo presuntziozko egintza lurralde historikoko aldirik ofizialean argitaratuko da, eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere. Laburpenean honako hauek jasoko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa; eremuari esleitutako hirigintza-erakigarritasuna; jarduketa-sistema; aurrekontua; eta urbanizatzeko lanak eta, hala bada, gero, eraikuntzako egikaritzeko programazioa”.

II. Alkatetzari dagokio UJPari behin betiko onspenera ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarik dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetzaren Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio behin betiko onspenera ematea.

AZTERKETA JURIDIKOA

“24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programa onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu dio, beraz, behin betiko onspenera eman daiteke. Horretarako, kontuan izan beharko da



hirigintzako buruak egindako txostenean jasotakoa eta 2/2006 Legeko 155. artikuluan arautukoa.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onespena ematea “24. lurre” esparruko “24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programari.

BIGARRENA.- Kontuan izatea honako zehaztapenak:

- UJParen funtsezko zehaztapenak hauek dira:
 - a) Jarduketa integratua: “24.1 lurramendi pasealekua” azpiesparrua.
 - b) Exekuzio-erregimena: kontzertazioa.
 - c) Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - c1) Sestra gainean: 14.040 m².
 - c2) Sestra azpian: 10.971,75 m².
 - d) Hiritartzearen aurrekontua (BEZ gabe): 1.630.702,09 €.
- Urbanizazio-fase bakoitza eraikinen egikaritze-faseari lotuta egongo da. Beraz, fase bakoitzeko urbanizazio-obrak amaituta eta Udalak jasota egon beharko dute, fase bakoitzeko eraikinen lehen erabilerako lizentzia emateko.
- Homogeneizazio-koefizienteak horiek eragin dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean eguneratu beharko dira. Beraz, horiek berrikusi eta justifikatu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan. Gainera, kontuan hartu beharko da Tolosako “24.1.lurramendi pasealekua” azpiesparruko hondar-balioaren estimazio-txostena, Marta González Cavia arkitektoak 2018ko azaroan Udalaren enkarguz idatzia.
- Ohartaraztea, urbanizazio proiektuak udal ingeniari teknikoaren txostenean zehaztutako kontsiderazio hauei erantzun beharko diela:
 - a) Azpiegituren erregistroen egoera zuzendu beharko da, betiere ibilgailuen trafikorako galtzaden kanpoaldean kokatuta.
 - b) Bidegorri-espaloia trazarura doitu beharko da 0+135 eta 0+170 kilometro-puntuen arteko zatian”.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onspen erabaki hau, edukien laburpen bat barne, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Halaber, Udalaren iragarki taulan zein goitza elektronikoan ere eskuragarri jartzea.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea



3. IURRAMENDI BARATZE PARKEAREN LURSAILAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEA.

Gaia mahai gainean geratu da.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2021/1628 DEKRETUA: 2021/36 eta 2021/38 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2021/628 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita, eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hauek:

36. zenbakia duena, 51.382,44 eurokoa.

38. zenbakia duena, 459.678,84 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

36. zenbakia duena, 51.382,44 eurokoa.



38. zenbakia duena, 459.678,84 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2021/1529 DEKRETUA, 2021/37 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/1529 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:

37. zenbakia duena, 32.188,08 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

37. zenbakia duena, 32.188,08 eurokoa.



BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2021/1652 DEKRETUA: 2021/39 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/1652 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira, eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:

39. zenbakia duena, 181.538,91 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturak oniritzi teknikoa dute eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

39. zenbakia duena, 181.538,91 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00021

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
Jarduneko idazkaria*

Karmele Contreras Goikoetxea

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0021-2021-10-13 Gobernu batzarreko akta/2021-10-13 Gobernu